

Elgoibar 1355. zenb.  
XXXII. urtea - 2025/01/24



**Gu berri bat**

# elkarrekin



elfoibarko  
herri eskola

Aurre-matrikulazioa: **otsailaren 3tik 14ra**

Tel. 943 899 178 / e-posta: [012777aa@hezkuntza.net](mailto:012777aa@hezkuntza.net)

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zalao Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.us/@barren@tkm.eus](https://mastodon.us/@barren@tkm.eus)

## Leire Kerexeta Berasaluze

Komunikazioan eta Zuzenbidean Graduatua

### Txuria eta beltza. Grisik ez?



**"Muturreko jarrerak arazo konplexuak erantzun sinpleekin konpontzeko tentazioa eskaintzen dute"**

**K**risi politiko, sozial edo ekonomiko, historiak erakutsi izan du gizartea muturreko diskurtsoetan babesten dela. Alegia, aipatutako egoeretan, segurtasuna eta ordena hitzematzen dutenen edota aldaketa erradikala promesten duten indarren garaia izaten da. Hala ere, bi jarrera horiek itxuraz kontrajarriak diruditen arren emaitza nahiko antzekoa izan daiteke.

Muturreko jarrerak arazo konplexuak erantzun sinpleekin konpontzeko tentazioa eskaintzen dute. Horregatik, diskurtso horiek zitzu bizian hartzen dute indarra eta populartasuna, jendeak ziurgabetasunari aurre egin nahi dion uneetan. Alde batetik, iraganeko "ordena" sustatzen duten diskurtsoak daude, beldurra eta segurtasun falta erdigunean jartzen dutenak herritarrak eurengana hurbiltzeko. Bestalde, herriaren izenean hitz egiten dutenak daude, etsaiak era argian seinatuz eta promes utopikoak eginez. Hots, bai aldarrikapen batzuek eta baita besteek ere planteamendu sinple eta errazegiak dituzte inguratzen gaituen errealitate konplexuaren aurrean.

Horrelako jarreraren ondorioa bat eta bakarra da, gizartearen zatiketa. Desberdinen arteko elkarbizitza oztopatzen dute horrelako ekintzek, eta horrek ezinbestean gatazkak areagotzen ditu. Demokrazia ere dantzan jartzen dute diskurtso mota horiek, eta horren adibide garbiak dira Venezuelak eta Ameriketako Estatu Batuak egun bizi dituzten egoerak. Hots, aniztasuna, negoziazioa eta elkarriketa badira sistema demokratikoaren zutabe, muturreko jarrerak honako ezaugarri hauek ahultzen dituzte.

Beti esan izan ohi digute bizitzan ez dela guztia txuria edo beltza, grisa ere hor dagoela, eta gainera hainbat tonutan. Beraz har dezagun esamolde hau eredu, eta topa gaitezen guztiok muturrek sortzen duten bi-dearen erdian.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



**Landarea ez da zakarrontzia:** "Ez dago eskubiderik. Jendeak gaur egun ez du ezer errespetatzen. Nire dendako landarean platano azal bat utzi didate, eta ez da horrelako hondakinak lagatzen dizkidaten lehengo aldia. Zakarrontziak erabili behar dira zaborrak botatzeko. Errespetu pixkat bat, mesez".



**Igogailurako bidean dagoen katea ez da ondo ikusten iluntzen duenean:** "Errotaberriko igogailurako bidean kate bat dago bidea zehazteko, baina iluntzean ez da ondo ikusten. Espaloiari segika bidea jarraituz, askotan katearekin txoke egitean ikusten da, eta harekin kateatuta lurrera erortzeko arriskua dago. Kolore biziagoren bat edo eman beharko litzaioke kate horri".



**Gehiegizkoa iruditzen zait Kirol Patronatuak urteko familia abonuan izan duen igoera:** "Urteko familia kuota 36 euro garestitu du Udal Kirol Patronatuak eta gehiegizkoa izan dela iruditu zait, kontuan izanda gainera, uztailetik igerileku txikia ezin izan dugula erabili". BARREN astekaria Kirol Patronatuarekin jarri da harremanetan, eta ondorengo erantzuna jaso du: "Kirol patronatuaren kuotaren igoera, batez ere, eskaintzen ditugun kirol zerbitzuen eta hauen baldintzen hobekuntzatik da-

tor. Zerbitzu on bat ematea, hein handi batean, kontratatuta ditugun enpresek eskaintzen ditugun zerbitzuak zehazten du. Hauetan ematen den igoerak, zuzenean eragiten dio kirol patronatuari eta erabiltzaileari. Hauek dira zerbitzu nagusiak: harrera-zerbitzua, sorospen eta ikastaro-zerbitzua, garbiketa-zerbitzua eta mantentze-zerbitzua". Gai honen inguruan sortutako zalantzak argitzeko asmoz patronatuak eskaintzen dituen zerbitzuak zehaztu ditugu ale honetako kirolen atalean.




## Jose Angel Celaya Piedra

2025eko urtarrilaren 20an hil zen, Valladoliden.

**Zure betiko irribarrea eta zure bihotz handia  
gurekin izango dira betiko.**

Zure Elgoibarko familia



# Urazandiko obrak iraun bitartean herri barruko autobusa doan izango da 60 urtetik gorakoentzat



**K**ing-kong zubiko obrak oztopoak eragin dizkie oinezkoei, eta horren aurrean 60 urtetik gorakoentzako herri barruko autobus zerbitzua doan ematea erabaki du Udalak, obrak iraun bitartean. Erabiltzaileek NANA edo beste identifikazio dokumenturen bat erakutsi beharko dute autobusaren sarreran, adina egiaztatu ahal izateko.

## Txankakuako zozketako zenbaki saridun batzuen jabeak oraindik ez dira azaldu

3.000 euro zozkatu ditu Txankakuak Egu-berrietako zozketan, eta otsailaren 7ra arteko epea jarri du saria jasotzeko. Oraindik zenbaki hauek ez dira azaldu:

Zk.	Saria	Ordezkoa
<b>93.382</b>	500 €	<b>07.297</b>
61.094	500 €	<b>16.595</b>
95.901	500 €	<b>57.108</b>
94.513	100 €	16.618
32.876	100 €	58.769
66.117	100 €	24.225
10.205	100 €	79.967
52.135	100 €	90.439
<b>14.266</b>	100 €	60.150
42.807	100 €	68.078
<b>41.190</b>	100 €	04.618
49.584	100 €	10.955
<b>17.280</b>	100 €	37.914
<b>05.968</b>	100 €	52.823
77.247	100 €	55.266
<b>56.497</b>	100 €	34.080
74.934	100 €	57.315
43.494	100 €	86.246

## Martxan da Elgoibarko Idazlan Lehiaketa

Ikasleen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko Elgoibarko Udalak Idazlan Lehiaketa jarri du martxan 8 eta 18 urte bitartekoentzako. Elgoibarko ikasleek edo kanpoan ikasi arren Elgoibarren erroldatuta daudenek hartu dezakete parte. Adinaren arabera bereiztu dituzte mailak,

eta sariak ere bereiztuta emango dituzte. 50 eta 120 euro arteko erosketa bonoak izango dira sariak. Idazlana euskaraz idatzita egon behar da eta aurrez inon argitaratu gabea izan beharko da. Lanak Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana, 2) entregatu behar dira martxoaren 11rako.



### Josefa Odria Barrenetxea

2025eko urtarrilaren 17an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Beti gure bihotzean, maite zaitugu.**

Sendiak



## Radarr pedagogikoak jarriko dituzte Altzolan



**A**ltzola parean bi radar pedagogiko ipiniko ditu Elgoibarko Udalak, 634 errepedean. Gidarien abiadurari buruzko informazioa ematea da radar horien helburua, gidariak jabetzeko zein abiaduratan zirkulatzen dabiltzan, eta beharrezkoa den kasuetan, abiadura murriztea, gidarien zein auzotarren segurtasuna bermatzeko. Auzorako bi sarbideetan ipiniko dituzte radarrak, bat Bilborako noranzkoan eta bestea Donostiarakoan. Bi gailuak 2,30 eta 2,50 metro arteko altueran egongo dira, eta teknologia aurreratua dutela zehaztu dute, 300 metrora arte dauden ibilgailuak detektatzen dituzten irismen luzeko antenak baitituzte. Gainera, ikuspen handiko LED pantailak dituzte, paretik igarotzen diren gidariei euren abiaduraren berri ematen diana, mezu pertsonalizatuak erakustearekin batera. Gailu horiek gehiegizko abiaduraz ohartarazteaz gain, kolore sistema baten bidez (berdea, anbarra eta gorria), trafiko estatistikak ere biltzen dituzte. Eguzki-energiak elikatuta funtzionatuko dute bi radarrek, eta biengatik 4.803,70 euro (BEZ barne) ordaindu ditu Udalak.

### Hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar

Udalak eta Debemenek antolatuta, hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar. Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute Kalebarren plazan.

### Sendi Anaitasuna elkarteak urteko batzarra egingo du domekan

Sendi Anaitasuna Mendaroko elkarteak urteko batzar nagusia egingo du domekan Azpilgoetako elizan, 11:30ean. Aurreko urteko diru-kontuen berri emateaz gain, kuota eguneratzea proposatuko dute eta hori izango da gai-ordeneko puntu nagusia. Bazkideentzako galdera tartearen ostean elkarteko bazkide guztien izenak irakurriko dituzte. Gogorarazi dute bilerara joaten ez denak 10 euroko isuna izango duela.

### Zortzi langabe kontratatuko dituzte eskualdean, herri-lanak egiteko



Herri lanak egiteko zortzi peoi kontratatutako deialdia egin dute eskualdeko hainbat udalek, Debemen elkartearen bitartez. Mendaro, Elgoibar, Soraluze, Deba, Itziar eta Mutrikuko berdeguneak egokitu eta txukuntzea izango da kontratatuko dituzten langileen zeregin nagusia. Horrekin batera, elementu txikiak eta ondasunak konponduko dituzte, eta baita espazio publikoak eta bideak mantendu eta garbitu ere. Kontratua sei hilabetekoa izango da (otsailetik abuztura), lanaldiaren %75ean. Eskatzaileek hainbat baldintza bete beharko dituzte: Soraluzen, Elgoibarren, Mendaron, Deban edo Mutrikun erroldatuta egotea; langabezian egotea eta kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran egotea, besteak beste.

Lan eskaintza horietarako izena emateko epea urtarillaren 26an amaituko da, eta interesdunek Lanbideren webgunean ([www.lanbide.eus](http://www.lanbide.eus)) eman beharko dute izena.

## Mastodon sare sozialean izango da aurrerantzean **BARREN**

**M**astodon sare sozialean izango da aurrerantzean Barren Komunikazio Taldea, @barren@tkm.eus kontuarekin, Tokikomek martxan jarri duen tkm.eus zerbitzariaren bidez.

Tokikom osatzen duten hedabideek -tartean da Barren Komunikazio Taldea- ohar bidez azaldu dutenez, "aspalditik" dabiltza "kezkaturata sare sozial korporatiboek hartu duten norabidearekin", eta uste dute "zerbait egiteko unea" dela: "X, Facebook, Instagram, Tik Tok, Youtube... sare horietan gero eta nabarmenagoak dira desinformazioa, eskuin muturreko interesen defentsa eta erabiltzaileen osasun mental eta fisikoaren gaineko kalteak, eta gaiztotze prozesu hori bizkortu egin da azken urtebetean". Horregatik erabaki dute, hain zuzen ere, Mastodoner a jauzi egitea. "Hainbat komunitate txikik osatutako sare bat da Mastodon, eta haren atzean ez dago korporazio multinazional gaiztorik, bere helburu bakarra erabiltzaileen arteko komunikazioa sustatzea delako". Hala, Tokikomek tkm.eus zerbitzaria sortu du, Mastodon sareko zerbitzari bat, tokiko informazioan espezializatua, eta bertan ireki dute kontua taldeko hainbat eta hainbat komunikabidek, tartean guk.



### Bat egiteko deia

Fedibertsoa sustatu eta indartu nahi duen erakunde, kolektibo eta pertsona talde batek *Goazen lagunok* egitasmoa sortu du, eta, haren kanpainarekin bat eginez, BARRENEK dei egin nahi die egungo jarraitzaileei: "Korporazio erraldoien menpeko sare sozial komertzialetatik Mastodon bezalako sare sozial irekietara pasatzeko: algoritmorik gabe, eta batez ere, geuretik eta geuretzat sortua".

Hala, Mastodoner a batu eta BARRENEKO kontua -@barren@tkm.eus- jarraitu nahi izanez gero, Mastodoneko kontu batetik egitea da errazena: Mastodon aplikazioan kontu bat sortu eta bilaketa kutxan BARRENEKO kontua sartuta, berehala jarraitu ahalko duzu. Konturik eduki ezean, euskaraz funtzionatzen duten bi zerbitzari daude aukeran, eta haietan zabaldu behar da kontua: *mastodon.eus* eta *mastodon.jalgi.com* dira zerbitzari horiek.

### END plataforma formalki eratzeko batzarra egin dute

Etxebetasunaren arazoari konponbidea emateko asmoz sortutako END plataformak lehen batzarra egin zuen joan zen astean Eibarren, eta adierazi dutenez, bailarako elkarre desberdinetako kide ugari batu ziren bertan: Gizarte-ekintzaren eremuko langileak, elkarre, sindikatu eta politikako kideak eta bereziki etxebetasunarekin kezkaturata dauden herritarrak. Plataformaren jatorriaren laburpen txiki batekin hasi zuten bilera eta, jarraian, itxi berri den neguko dispositiboaren eta plataformaren azken mobilizazioei buruzko bideo batzuk proiektatu zituzten. Ondoren, elkarrearen estatutuak aurkeztu zituzten, onartu ahal izateko. Azkenik, plataformak emango dituen hurrengo urratsak



zeintzuk diren azaldu zuten, baina horiei buruzko zehaztasunak hurrengo baterako laga zituzten.

## Garagartzako uholdeei aurre egiteko laguntza eskatu dio Mendaroko Udalak Aldundiari

Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak eta Felix Urkola Errepideetako Diputatuak Mendarora bisita egin zuten, amaitu berri duten zubia bisitatzeko, eta bisita hori baliatu zuten Enez Ezenarro Mendaroko alkatearekin lan bilera bat egiteko. Uholdeen gaia izan zen bilerako gai nagusia. Alkateak azaldu zien URA agentziaren 2021eko azken txostenaren arabera ezinbestekoa zela Garagartza auzoko uholdegarritasun arazoei erantzuteko ekaitz tankeak eraikitzea eta ekaitz tankeen proiektua idatzita zegoela. Herritarrei 2023an Diputazioan egindako bileran proiektu hori Udala, Diputazioa eta Ur Partzuergoaren artean kofinantziatuko zela agindu zitzaizela eta, zentzu horretan, akordioaren bat bilatzeko borondatea erakutsi zien Udalak.

Bestetik, errepideen inguruko gai desberdinak ere landu zituzten, besteak beste: Mendarorako errepidezko sarrera berria (proiektua



idazten ari da Diputazioa), Elgoibartik Debarako noranzkoan autobus geltokian sortzen diren arriskuak, eta Errepideetako Zarataten Kontra-ko Plana.

### Euskara batzordeak sortu dituzte Elgoibarko ikastolan eta institutuan, Elgoibarko Izarraren bitartez



Nerabeen eta gazteen artean euskalduntasuna sustatzeko euskara batzordeak sortu dituzte Ikastolan eta Institutuan, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak Sailaren bitartez. DBHko ikasleekin sortu dituzte taldeak, eta besteak beste, euren berdinkideekin euskalduntasuna sustatzeko baliabideak eskainiko dizkiete. Institutuan 53 bat ikasle batu dira taldera, eta Ikastolan, berriz, 30. Arduradunek esan dute bi

ikastetxeetako nerabeak elkar ezagutzeko eta euren arteko komunikazio-hizkuntza euskara izatea ahalbidetzeko espazioa eskainiko diete. Euskara batzordeek bi norabidetan jardungo dute lanean: ikastetxera begira eta herrira begira. Herrira begirako lanetan, gainera, elkarlanean jardungo dira beste eragile batzuekin. Azken batean, ikasleak ikastetxean zein herrian euskalgintzako eragile bihurtzea dute helburu.



## JULEN ARANGUREN

Zarauzko Udaleko Immigrazio eta  
Kultura Aniztasunerako teknikaria

✍️ Ainara Argoitia

'Zergatik eta zertarako euskaldun?' programaren barruan, immigrazio eta kulturartekotasunari begira ditugun erronka eta zailtasunez jardun zen martitzenean Julen Aranguren (Donostia, 1973) Elgoibarren, Ekhine Eizagirre kazetari eta antropologoaren (Zarautz, 1984) galderei erantzunez. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatu zuten solasaldia, 'Gu berri bat sortu beharra' izenburupean, eta hitzaldi bezperan egindako elkarrizketa duzue hau.

**Kezka moduan bizi da sarri immigrazioa, lehendik ere zail dagoen euskalduntzea oztopatuko duen beldurrez. Immigrazio eta kultur aniztasunaren teknikari gisa ari zara lanean zu hogeitaka urtean. Noizkoa da kezka hori, eta zer fundamentu du?**

Kezka hori erreal da. Immigrazio eta kultur aniztasunean baradamazkigu hogeitak urtetik gora lanean eta esango nuke azken urteotan kezka horrek indar handia hartu duela, beste kezka batzuen aldean. Konturatu gara immigrazioa ez dela fenomeno puntual bat, baizik eta egiturazkoa; alegia jabetu gara etorkinek etortzen jarraituko dutela, behar ditugulako eta guk geuk ekarriko ditugulako, gure bizi-baldintzak mantentzeko. Kezka, beraz, legitimoa da eta ulertzen dut, baina nik ez dut uste euskararen partida hor jokatzeko denik. Etorkinak erresilienteak dira, eta hemen bertokoen jokaerara egokitzen dira. Euskaldunok euskara erabiltzen baldin dugu eta bultzatzen baldin badugu, gune euskaldunetara edo ia euskaldunetara iristen diren etorkinek edo haien seme-alabek imitatuko dituzte gure portaerak. Euskalduntzearen pilota etorkinen teitlatuan jartzen dugu sarri, baina izatez, gurean dago.

**Komeni zaigu kanpotik datorrena euskarara erakartzea, baina batetik dago gure borondatea eta**



*“Gaur egun, euskarak prestigio soziala dauka eta hori klabea da migratzaileak euskarara erakartzeko”*

**bestetik daude haien premiak. Egiten al dugu aha-  
leginik bestearen lekuan jartzeko? Nola ezkon dai-  
tezte gure nahiak eta haien premiak?**

Ahalegina pertsonala da, baina egia da sorbalda ginetik begiratzen diegula sarri. Baina, bai, geu gara etorkinen premia dugunak, geu gara haiek euskarara ekartzeko beharra dugu-

nak, eta beraz, eskaini beharko genizkieke euskalduntzeko baldintzak, baliabideak eta aukerak; gonbidatu behar ditugu gure hizkuntzaren biziberritze prozesura, eta ez euskaldunduko direla dakigun etorkinak bakarrik, baita euskaldunduko ez direnak ere. Euskararekiko lotura afektiboa sortu behar dugu biztanle guztiengan, baina jakinda heldutan gurera iritsitako atzerritarren artean gutxi izango direla euskaldunduko direnak. Bigarren belaunaldikoak izango dira seguruago euskaldunduko direnak; 50-60ko hamarkadetan estatutik etorri zirenekin ere hori gertatu zen. Dena den, sortu behar ditugu ekimenak, senti dezaten euskara beraiena ere badela. Euskaraz hitz egin eta ulertu ez arren, euskara beraien seme-alabena den neurrian, euren ere badela sentiarazi behar diegu, eta horretarako abiapuntu ona da beren jatorrizko kulturaren aitortza egitea.

Herriratzen lagundu behar diegu. Lagundu behar diegu harreman-sarea ehuntzen, kapital sozial hori dutenean askoz errazago integratuko direlako. Ikusi dugu euskara ez dagoela etorkinen lehentasunen artean, ez dutela euskararekin lotura afektiborik. Hizkuntzarekiko haien jarrera instrumentala izaten da hasieran, baina denborak aurrera egin ahala, instrumentala izateaz gain, sentimentala izatera ere iritsi daiteke. Guri dagokigu lan hori egitea.

**Elgoibarrera bizi hobego baten bila etorritakoek aitortu zuten migrazio prozesu zailak eta mingarriak izan zituztela, eta askotan, gainera, arrazakeriak alderik alde gurutzatutakoak. Asko paperik gabe etorri ziren, gainera. Zer nolako harrera egiten diegula uste duzu?**

Prozesu luzea eta jarraia da immigrazioarena, eta iruditzen zait normaltasun handiz hartzen ditugula, badauden arren, jakina, diskurtso arrazistak, eta bereziki, gainera, talde jakin batzuen kontra, magrebtarren kontra-eta. Sinpatia-maila ezberdina izan ohi da etorkinen jatorriaren arabera, baina diskurtso arrazistek eragina dute jende horrengan, besteak beste etxebizitza eskuratzeko orduan, eta komeni da hori mahai gainean jartzea. Baina immigrazioarena nahikoa kontu berria da gurean. Duela hogeitatu urte hasi ginen kanpotik zetozenak hartzen, ordura arte estatu espainiarra gehiago zelako emigratzailea imigratzailea baino, baina esango nuke gure herriak

*"Immigrazioaren gaineko kezka legitimoa da eta ulertzen dut, baina nik ez dut uste euskararen partida etorkinen teilatuan jokatzen denik"*

ere asko aldatu direla hogeitatu urtean. Lehen, etorkinen portzentaiak %1-2 ingurukoak ziren gure herrietan; orain, berriz, %10etik gorakoak dira datuak [Eustaten arabera, Elgoibarren, herritarren %14,70 dira atzerrian jaiotakoak, eta Mendaron, %14,20]. Ikusten dugu, beraz, badagoela aldaketa bat, urteetan jarraia dena, eta oro har, normaltasunez hartzen ari garena. Egiten diegun harrerari buruz esango dizut Atzerritarren Legeak guztiz baldintzatutakoa dela. Lege horrek guztiz baldintzatzen du kanpotik datozenak hemen normaltasunez biziitzea, eta horri gehitu behar zaio Etxebizitzaren arazoa, denontzat ere arazoa dena.

**Elgoibarrera bizitzera etorritako jatorri askotarikoei hitza eman zientenean askok esan zuten ez zekitela euskara existitzen zenik ere hemen. Non kokatzen dugu euskara egiten diegun harreran?**

Esan gabe konturatzen dira euskara daukagunaz inguru euskaldunera iristen diren etorkinak. Iruditzen zait askotan jotzen ditugula etorkinak ahaldundu behar diren subjektutzat, baina badutela gaitasuna ikusteko, aztertzeko, ulertzeko eta egokitzeke etorri diren lekura, sekula migratu ez dutenak baino askoz ere erresilienteagoak direlako. Esango nuke esaten zaiena baino garrantzitsuagoa dela guk egiten duguna. Ikusten diot garrantzia esaten duzun horri, baina beti ere testuinguru batzuetan, batez ere Gipuzkoako hirietan eta Gipuzkoatik kanpora, non euskara ez den entzuten eta eskolatu behar dituzten beren seme-alabak entzuten ez den hizkuntza horretan. Kasu askotan, gainera, kanpotik datozen horiek ikasle onak ziren beren herrialdeetan, baina etortzen dira hona nerabezaroan eta eskolatu behar dira iritsi aurretik ezagutzen ez zuten hizkuntzan, hemen oso jende gutxi hitz egiten duen hizkuntzan, eta gainera ikasturte bat behereago. Kontraesana ikusten dute hor, normala den

moduan, eta iruditzen zait harrera-planetan egin behar dela lan bat esateko gure gizartean egiten ari garela ahalegin bat gure hizkuntza biziberritzeko eta gonbidatzen ditugula gurekin batera hizkuntza hori bultzatzera. Ez da nahikoa euskara ere badela aipatzea; hizkuntza egoeraren berri ere eman beharko genieke, eta lagungarri izan daiteke beraien jatorrizko lurraldeetako hizkuntzekin alderatzea gure egoera, beren herrietan ere antzeko prozesuak bizi dituztelako batzuek.

### **Migrazio prozesu guztietan bereizten dira garaiak, eta pentsatzekoa da alda daitekeela euskararekiko duten pertzepzioa ere, ala?**

Bai. Ikerketa bat egin genuen Zarautzen orain urte batzuk. Ez zen helburu zientifikoekin egindako ikerketa izan, baizik eta etxe barrurako egindakoa. Venezuelatik etorritako langile bat kontratatu genuen eta bidali genuen lokutorioetara, atzerritik etorritako emakume zarautzarrei galdetegi bat egitera. Askotariko gaiez galdetu genien, eta tartean baita euskarari buruz ere. Hemen hiru urte baino gutxiago zeramatenen erantzunetan euskara ez zen lehentasunen artean agertzen, askoren asmoa lehenbailehen beren lurraldera bueltatzea zelako. Baina hemen sei urtetik gora zeramatenezako beren seme-alabek euskaraz ikastea zen garrantzi handieneko kontua, beren herrialdera dirua bidaltzearekin batera. Horrek erakusten du hazkuntza soziale-rako elementua dela askorentzat euskara. Etor-kinek nahi dute beren seme-alabak gu bezala bizitzea eta garbi ikusten dute euskara dela horretarako giltzatak bat.

### **'Gu berriak' zeintzuk ezaugarri izan beharko lituzke?**

Besteak eta gu bitasuna apurtu beharko genuke, eta gu berrirako urratsa alde bietatik egin. Batetik, kanpotik datorrenak egokitzeko ahalegin handia egin beharko du, zalantzarik gabe gurea baino handiagoa, baina bestetik, gu ere egokitu behar gara errealitate berrira, pausoa eman eta beraiengana hurbilduz. Ezagutu behar ditugu beraien bizi-baldintzak zeintzuk diren eta jabetu behar gara gure jarrera arrazistez, gu berri bat eraikitzeke oztopo handia direlako besteekiko ditugun aurreiritziak eta xenofobia. Haien hizkuntza, kultura eta identitatea ere barnebildu behar

ditu gu berriak, eta horiek aitortzetik hasi behar dugu. Euskaldunok joera daukagu gure egoera antzekoetan daudela uste dugunekin aliantzak bilatzekoa, baina beti ez dit balio izan horrek ere. Gogoratzen naiz Paraguitik etorri eta gaztelaniaz nekez hitz egiten zuen emakume guarani bati galdetu niola behin ia guarani hiztuna zen eta ez zidala ondo hartu. Ikusten zen nahiko mendialdekoa zela eta garai batean hemen euskaldunek izan zuten konplexu halako bat zuen. Horrekin ere kontuz ibili behar dugu, baina bai, beraien hizkuntza aitortzea pauso inportantea da gu berria eraikitzeko.

### **Nola eraiki beharko genuke gu hori inor kanpoan laga gabe?**

Kulturartekotasuna da gure integrazio eredu, eta horrek esan nahi du identitate kultural desberdinak dituzten pertsona edo taldeen arteko elkarrekintza zein komunikazioa sustatzea dela abiapuntua, baina askotan gehiegi erreparatu diogu arlo kulturalari eta iruditzen zait garrantzitsua dela aukera berdintasunari eta ekitateari gehiago begiratzea, arlo ekonomikoari eta sozialari alegia. Hemen bertokoen gizarte egitura eta kanpotik datozenena ahalik eta antzekoena den neurrian izango da haien integrazioa benetakoa. Etor-kinen artean langabezia-tasa gurearen halako hiru bada edo eskola porrota hiru aldiz handiagoa badute, badugu zer konpondua.

### **Euskararen prestigioan ikusten duzu giltza.**

Klabea da. Gaur egun, euskarak, beste garai batzuetan ez bezala, prestigio soziala dauka, eta hori klabea da migratzaileak euskarara erakartzeko. Migratzaileak azkar konturatzen dira Elgoibar batean euskaldunak beraiak baino hobeto bizi direla eta badakite hurrengo belaunaldiei begira euskara ikastea garrantzitsua dela egoera soziala hobetzeko. Euskarak hori galduko balu, aktibo garrantzitsu bat galduko luke. Katalunian hori ari da gertatzen eta katalanarentzat galera handia ari da izaten. Bestalde, euskarak identitate soziala ere ematen du. Euskara dakiena euskalduna da, eta berdin da pertsona hori nondik etorria den; berdin da arraza. Migratzaileak konturatuta daude euskaldunok beste modu batean hartzen ditugula euskaraz zerbait esateko ahalegintzen direnak.



*Iñaki Konde (eskuinean) Madi Hayayrekin, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lanbide Heziketako arduradunarekin.*

## Hezkuntza akuilatzeko ahalegina, Tindufen

**Mundubat gobernuz kanpoko erakundeak eskatuta, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan izan da Iñaki Konde elgoibartarra, Lanbide Heziketako nazioarteko beste zenbait ordezkariarekin batera, hango ikasle eta irakaslegoa motibatuzeko antolatutako nazioarteko topaketa baten harira.**

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Iñaki Konde

**M**endebaldeko Saharakoa ahaztutako eta isilarazitako gatazka da", zioen Kristina Berasain kazetariak *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuan, eta ez zaio arrazoirik falta. Marokoren okupazioak banatuta bizitzera behartu ditu sahararrak, eta halaxe bizi dira joan deneko ia 50 urtean: batzuk jazartuta, Marokok okupatutako lurretan, eta beste batzuk errefuxiatuta, Aljeriak behin-behinean lagatako basamortu zatian, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuan. Nazioarteak emandakoarekin bizi dira hein handi batean, baina azkeneko urteetan laguntza hori asko murriztu da, eta egoerak okerrera egin du nabarmen. Eta horrek, jakina, etsipen halako bat ere sortzen du tarteka sahararren artean, nahiz eta nortasunari eta erresistentziari eusten dioten, noizbait jaioterrira itzultzeko itxaropenez. Hala sentitu du Iñaki Konde elgoibartarrak, Lanbide Heziketaren nazioarteko ordezkarietza talde

baten baitan Tindufeko kanpalekura egin duen bisitan.

Mundubat erakundeak, eta Saharako unibertsitateak eta gobernuak antolatutako nazioarteko jardunaldietan parte hartu du Kondek. Lanbide Heziketan egindako ibilbideagatik aukeratu zuen Mundubatek Konde hango irakaslegoa eta ikaslegoa motibatuzeko eta eskolarako laguntza bide berriak topatzeko, eta Kondek Lanbide Heziketaren munduan duen harreman-sare handiaren jakitun, nazioarteko ordezkarien taldea osatzeko ere eskatu zion. Batek eskatu, eta besteak bete.

Ez du hara joan den aurreneko aldia izan Kondek, bere garaian Lanbide Heziketako Gazuani proiektuaren sortze-prozesua ezagutu zuelako eta sarri tokatu zitzaiolako gerora ikastetxe hartara joatea, baina urte haietatik gauzak asko

aldatu direla ikusi du. "Kanpalekuek ezer ez dute bukolikotik. Lehen, olanezko haimak zeuden lekuan gaur adobezko etxeak daude, txabola tipo-koak. Lehen bezala, lurzorua hondarrezkoa da orain ere, eta gelak alfonbraz beteta egoten dira, koloretako kuxinez inguratuta. Lurrean lo egiten dute orain ere, eta komuna lurrean egindako zulo bat izaten da, baina Aljeriaren sare elektrikoa *wilaya* guztietara iristen da, Aljeriak zerbait badu, gasa duelako, eta kanpalekuetako etxola gehienetan dituzte telebistak, antenak eta garbigailuak. Lehen, eguzki-plakekin eta motor batekin sortzen zuten argindarra, eta orain, eguzki-panel horietako asko bazter lagata dituzte, txatarraztat, auto zahar askoren zatien artean. Kaleak lehengoak dira, baina orain dendak, estankoak... ikusten dira. Plastikozko ur biltegi handiak ere bazter guztietan daude. 40 bat urteko Mercedes zaharrek ere ikusten dira gazteak kalean aurrera eta atzera, pozik, kotxea izatea ametsa delako askorentzat". Aldaketak dira, aurrerapentzat uler daitezkeenak gure begiekin begiratuta, baina beti dira bainak. Gizarte desorekak lehen baino ageriagoak dira orain, eta eguzkia eta hondarra bakarrik ikusetik munduan beste batzuk nola bizi diren ikusteko aukera izatera pasatzeak berak etsipena eta apatia ere sortu ditu gazte askorengan. "Normala da. Eskasia handia da eta zain egoteaz aspertu dira. Ez dute etorkizunik ikusten. Han ez dago ezer. Kanpalekuetan ia ez dute ezer sortzen. Bere garaian eguzki-pa-

nelak erabilia sortzen zuten energia, baina orain Aljeriak ematen die nahi beste eta iruditzen zait oharkapean menpekotasun handiagoa ari direla onartzen".

Desesperantza horrek ondorioak ere baditu, ikasle nerabeengan, bai eta irakasle askorengan ere, eta horixe sentitu du Kondek Tinduferra egindako bisitan; umetan denak eskolatzen dituzten arren, badagoela adin tarte bat non errazagoa den eskola lagatzea, etorkizunik ikusten ez duenarentzat ahalegin handia eskatzen duelako. Irakasleek ere zaila dute motibazioa topatzea, are gehiago gehienak atzerrian ikasitakoak direnean eta kanpoan zer dagoen ikusitakoak direnean. Gazuani Lanbide Heziketako ikastetxea ezagutzen du ondoen Kondek, urteetan hara egindako osteretatik, eta irudipena izan du asko jaitsi dela ikasle-kopurua han, Lanbide Heziketako eskoletan. Lehendik ere bazuen errezelo hori. "Pena da", zehaztu du.

Helburu jakinekin gonbidatu zuten hara Konde, gaur Zahar eta Gazte Elkarteko kide dena, nahiz oraingo honetan ez den elkarte ordezkatuz joan hara [Euskadiko irabazi-asmorik gabeko Lanbide Heziketako Irakasle Erretiratuen Elkarte da Zahar eta Gazte]: Lanbide Heziketako ikastetxeak kanpoan, nazioartean, zein baloratuak dauden ikustarazteko bertakoei eta Iñakik urte guzti hauetan Lanbide Heziketan egin dituen harremanak baliatzeko, eskolak hain premiaz-



*Iñaki Konde, mikrofoa eskuan duela, Saharako eta nazioarteko ordezkariak ematen.*

ko duen materiala inguratu ahal izateko. Suedia, Finlandia eta Irlandako Lanbide Heziketako ordezkariak topatzeko eskatu zion Mundubatek zeregin honetarako, baina batzuen ezinak tarteko, azkenean Valentziako Lanbide Heziketako bi lagun, Extremadurako beste bi gazte eta Irlandako bosgarren bat lagun hartuta joan zen hara. "Lanbide Heziketa Garatzeko Europako Zentroko (Cedefop) eta Eusko Jaurlaritzakoei ere egin genien gonbidapena Mundubaten bitartez". Tindufera iritsita, Euskadiko Lanbide Heziketaren organigrama eta hemengo proiektuak azaldu zizkien sahararrei Kondek eta azpimarra jarri zuen hezkuntzaren balioan. Kanpalekuetan egin zuten denboran han bertakoen haimetan aterpetu ziren eta, gorabeherak gorabehera, sahararren artean saharar izatearen kontzientziak bizi-bizi jarraitzen zuela egiaztatu ahal izan zuten, bai eta

eta emakume sahararren indarraz jabetu ere. Gizonak gerrara joan zirenez, emakumeek zutitu behar izan zituzten kanpalekuak eta ardurak hartu, eta horren ondorioa da emakume sahararrek egungo egitura politikoetan duten parte-hartzea. "Eskasiak eskasi [Ilargi Gorriaren arabera, errefuxiatuen %91 zaurgarritasunean bizi dira, eta oinarrzko saskia herritarren %75era bakarrik iristen da], umeak ume izaten jarraitzen dute eta jolasean dabilta, traste zaharrak hartuta, alai. Alaitasun hori ikustea izugarria da".

Itxaropenetik etsipenera eta etsipenetik itxaropenera saltoka ikusten ditu sahararrak Kondek, beren borrokaz harro, baina nazioartek ahaztuta. Harako materiala inguratzen ari dira orain, udan konboi bat bidali nahiko luketelako hango Lanbide Heziketako ikastetxetara.



## ALI ENDAY **Gazuani Lanbide Heziketako ikastetxeko irakaslea**

Tindufen dago Gazuani Lanbide Heziketako ikastetxea, Rabunitik bost bat kilometrorra. Hango irakasle da Ali Enday 1998az geroztik. Kuban lizentziatu zen eta arotzeriako maisu da Gazuani, irakasle guztien artean veteranoa. Sinistuta dago herrigintzan hezkuntza dela bidea eta gazteria hezten eta prestatzen lan egiten du, "zailtasun askorekin". Hala ere, eta "basamortuan, baliabide eskasekin eta egoera anker batean" bizi eta lan egin behar izanda ere, tinko eusten dio bere egitekoari, herri sahararrak bere borrokari eusten dion modu berean.

## **"Fronte Polisarioak lehentasunen artean izan du beti hezkuntza"**

**Lanbide Heziketako irakasle veteranoa zara, Gazuani Lanbide Heziketako ikastetxean. Nolako da hezkuntza errefuxiatuen gunean, zer ezaugarri ditu zuen ikastetxeak?**

Hezkuntzan etengabeko ahalegina egin da errefuxiatuentzako gunean. Urte hauetan guztietan, haurtzaindegiak, eskolak, barnetegiak eta Lanbide Heziketako zentroak eraiki dira *wilaya* bakoitzean (bost daude guztira), eta eskola-adi-nean dauden haur guztiak eskolatzen dira. Gaur, biztanleriaren %90 inguru alfabetatuta dago. Gazuani da Lanbide Heziketako zentroetako bat. Rabunitik bost kilometrorra dago, basamortuan, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan. Espezialitate ezberdinak eskaintzen ditugu hemen.

Arotzeria, mekanika, informatika, etxeko elektrizitatea eta soldadura espezialitateekin zabaldu genuen eskola eta gehitu genuen gero eraikuntza espezialitatea, baina ez zuen horrek asko iraun. Gaur, eraikuntzarari eskainitako tailerrean elektrizitatea ematen dugu, etxekoa eta automobil-tzari lotutakoa. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari esker sortu genuen proiektua hein handi batean eta oso eskertuta gaude, jakina. 2006an, baina, uholde handiak izan genituen eta galdu genuen ia eraikinaren %40 inguru. Eraiki genuen berriro, baina beste forma bat emanda. Ordurako Jaurlaritzarekin geneukan hitzarmena amaitu zen eta oso bestelako egoeran eman genituen urte batzuk gero, harik eta Mundubat gobernuz

kanpoko erakundea iritsi zen arte. Gure eskola materialez hornitzeko, azpiegiturak birgaitzeko eta irakasleak prestatzeko proiektuetan lagundu digu Mundubatek. Beste elkarte batzuetako boluntarioak etortzen zaizkigu laguntzera, baina ez Euskal Herritik etortzen direnek besteko baliabideekin. Errefuxiatuen kanpalekuetara iristen den laguntza izugarri murriztu da azken urteetan, eta premia handia daukagu, dakizuen bezala hemen %95ean nazioarteak emandakoarekin bizi gare-lako. Gazuani zentroan beraz, etorkizuna ez eze oraina bera ere kolokan izaten dugu askotan, nazioarteko erakunderen batekin kooperazio hitzar-menik izan ezean, hemen jai dagoelako.

### **Behar nagusiak zeintzuk dira?**

Tailerretan lanerako materiala falta dugu, eta hori gabe zaila da ikasleei zerbait irakastea. Irakasleontzat hori da etsigarriena, ahoz azaldutakoa praktikara eramanez ahal izateko materialik ez izatea, eta lanbide heziketan badakigu hori oinarrizkoa dela. Badaude beste behar batzuk ere, jakina, baina frustagarriena hori da. Hemen ezer ez da normala eta gure esku dagoena egin behar dugu geure buruei, geure familiei eta geure nazioari laguntzeko.

### **Zer harreman duzue edo izan duzue Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeekin?**

Harreman handia. Estimaten dut Meka, gehien lagundu digun ikastetxeetako delako. Anaiatzat ditut Iñaki Konde eta horko beste zenbait ordezkari, tartean Koldo Anta arotzeriako irakaslea, Jose Luis Aperribai Ape automozioak eta orain izenez gogoratzen ez naizen beste lauzpabost lagun [Andres Monreal, Xabier Dorronso-ro, Karlos Lopez eta Fernando Mansilla irakasleak izan ziren haiekin batera han]. Haiei esker lortu genuen, hein handi batean, zentro hau erreferente izatea gure gazte jendearentzat. Beti izango gara haiekin zorretan. Baliabideak, materiala eta formazioa jaso genuen haien bitartez.

### **Jakina da Sahararako benetako irtenbidea politikoa dela, baina zer ekarpen egiten dute Tindufeko kanpamentuetako hezkuntza-proiektuek?**

Guretzat ezinbestekoak dira. Gazteek hemen zaila dute dena. Gerran gaude, gure lurretik kanporatuta, baina noizbait itzuliko garen itxaropenak batzen gaitu. Fronte Polisarioak, milaka saharar Aljeriako desertura heldu zirenez geroz-

*"Ikastetxeko tailerren materiala falta dugu eta hori gabe zaila da ikasleei zerbait irakastea. Irakasleontzat hori da etsigarriena"*

tik, lehentasunen artean izan du beti hezkuntza. Gure gobernuarentzat oso da garrantzitsua gazteei prestakuntza ematea sahararrok bizi dugun guzti honen kontra egiteko eta herri gisa ahaldunduta egoteko. Identitatean sendo gaude, eta gure gazteak gauza asko falta dituzten arren, ahalegin handia egiten ari dira, hori delako aurre egiteko aukerak bidea.

### **Zer perfiletako ikasleak dituzue Gazuanin?**

17 urtez gorako ikasleak dira gureak, baina ikasturte honetan ikasle gazteago batzuk ere hartu ditugu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzeko arazoak izan dituzten ikasleak izan dira, eta hartu ditugu, gure Gobernuaren lehentasuna hori delako: gazte bakar batek bide txarrik ez hartzea, drogan eta behar ez diren beste kontuetan jausteko arriskuak saihestea alegia. Eskolako ateak zabalik ditugu beti, baina arazoa gero dator. Gobernuak esana duen arren saiatuko dela ikasleentzako lana topatzen eta egiten duen arren ahalegina, zaila dago, eta ikasleen %85 inguruk beren kasa topatu behar izaten dute zerbait. Horretarako, tailer txikiak sortzeko, aursarta izateaz gain, baliabideak ere behar dira. Nik ikasle izan ditudanetako asko Euskal Herrira eta Espainiara ere joan izan dira udako oporraldian eta horko familiak ere saiatzen dira bidea errazten eta ikasi duten horretan lana topatzen, baina zaila da. Eta hor zaila bada, atera kontuak hemen, bizi garen baldintzetan.

### **Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Nahi nuke mundu guztiak jakitea duela 50 urte baino gehiago gure lurralde indarrez kendu zizkigunetik erbestean bizi garen herria garelako. Tindufeko errefuxiatuentzako guneetan bizi den bosgarren belaunaldia da gurea eta Aljeriako herriren batera noan aldiro sentitzen dut asko falta dudala haien pare bizitzeko, asko falta dudala aske sentitzeko. Gure herri aberatsa Aljeriak utzitako basamortu zatira kondenatu dute. Noizbait itzuliko gara, baina, Mendebaldeko Saharara.

## NAHIA ROJO

Psikologo eta sexologoa

 Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udalak sexu aholkularitza zerbitzua jarriko du martxan Guztiok elkartearekin lankidetzan. Sexualitatearekin lotutako hainbat alderdi jorratuko dituzte, besteak beste, sexu-orientazioa, aholkularitza eta laguntza arduratsua. Banakako, bikoteentzako edo talde txikientzako arreta emango dute, konfidentzaltasun osoz. Herritar guztiei zuzendutako zerbitzua izango da; adin edota genero guztietako herritarrentzako. Doako zerbitzua izango da, eta hilean behin emango dute arreta presentziala, hileko azken astelehenean Lilan, 16:00etatik 19:00etara. Derrigorrezkoa ez bada ere, aldezturik hitzordua hartzea gomendatu dute arduradunek, [desiraelgoibar@gmail.com](mailto:desiraelgoibar@gmail.com) helbidera mezu elektronikoa bidaliz. Nahia Rojo izango da zerbitzua emango duen aholkularia (Ermua, 1982).



*“Espazio seguru bat eskainiko dugu, jendea entzuteko, inor epaitu gabe”*

### **Sexologia aholkularitza zerbitzua emango duzu hilean behin, Lilan. Aurkeztu iezaguzu zure burua.**

Psikologo eta sexologoa naiz ikasketaz, eta Guztiok enpresaren bitartez sexu aholkularitza ematen dut. Sexologia arloko formakuntza saioak ere ematen dizkiet irakasleei, ikasleei, familiei eta baita aniztasun funtzionala duten pertsoneri eta haien ingurukoei ere. *Gustura* izeneko programa daukagu haientzat. Kolektibo honi denbora askoan ukatu zaio sexualitatea, eta hor sartuta gaude, aholkularitza ematen. Arlo pribatuan ere eskaintzen ditut terapia psikologikoak.

### **Elgoibarko sexu aholkularitza gunean zer eskainiko duzue?**

Hileko azken astelehenetan emango dugu zerbitzua, Lilan. Doan izango da, eta nahi duen jende guztiarentzat. Bakarka, bikotean edo talde txikian etor daiteke eta sexologiari lotutako edozein zailtza argitzen saiatuko gara. Profesionalak gara,

eta espazio seguru bat eskaini nahi dugu, jendea entzuteko, inor epaitu gabe. Gure zeregina entzutea izango da, laguntzea, bibliografia egokia eskaintzea, aholkuak ematea eta beharrezkoa den kasuetan beste norabaitera bideratzea. Gurasoentzako ere interesagarria izan daiteke, jakiteko seme-alabekin sexualitatearen gaia nola landu. Askotan galduta egoten dira gurasoak gai honetan. Argi utzi nahi dugu jende guztiarentzako zerbitzua izango dela.

Eta sexualitateaz haragoko gaiak ere landuko ditugu: generoa, transfeminismoa, identitate sexuala, indarkeria matxista... Gure taldean denok gaude formatuta genero eta berdintasun kontuetan, eta genero aniztasuna oso presente daukagu. Gure sexu hezkuntzak hiru ardatz ditu: sexologia, generoa eta berdintasuna, eta sexu eta genero identitatea. Gai hauetan ere aritzen gara.

Ez da beharrezkoa txanda hartzea, baina gomendagarria izango da, tarte bat gordeta dauka-



zula ziurtatzeko. Ordua hartuta dutenek lehen-tasuna izango dute, eta txanda gabe datozenek itxaron egin beharko dute.

### **Gune segurua, konfidentziala eta lasai hitz egitekoa izango dela diozu. Oraindik beldurra ematen du sexualitateari buruz hitz egiteak?**

Ez gaude lehengo egoeran, baina bai, sexualitatearen gaiak tabu izaten jarraitzen du oraindik, nahiz eta apur bat normalizatu den. Gaia pil-pilean dago, eta gero eta gehiago hitz egiten da, batez ere gazteen artean. Horrelako aholkularitza guneetan jende gaztea ibiltzen da batez ere, eta haiek normaltasunez hitz egiten dituzte gai asko, baina guk iritsi nahi dugu baita ere jende heldua-rengana, haiek ere gaiaz lasaitasunez hitz egin dezaten. Lila azpian jubilatuen egoitza dago, eta guretzako sekulakoa izango litzateke jubilatuegan-ere iristea. Oso aberasgarria izango litzatekeela iruditzen zait.

### **Informazioaren garaian bizi gara, eta informazioa erraz eskuratzen da edozein gairi buruz. Baina kalitatezko informazioa iristen gara?**

Informazio gehiago daukagula uste dugu, baina guk beti esaten dugu informazioa baino mezuak zabaltzen direla sare sozialetan, eta askotan ez direla mezu egokiak izaten. Badaude profesional onak ere, baina bereziki gazteengana modu errazean iristen direnak ez dira serioak izaten gehienetan; hitzontzi asko dago sarean. Guretzako Elgoibarko Udalak egin duen apustua oso ona da, eta hau izan behar da bidea, gune honetan informazio zehatza eta zuzena emango dugulako. Guk ikasketa serioak dauzkagu eginda eta informazio serioa ematen dugu. Interneten zabaltzen diren mito askoren benetako bertsioa lantzen dugu edo gutxienez haiei buruz eztabaidatzen dugu. Guk ere jarraitzen ditugu sare sozialak eta ezagutzen ditugu gazteentzako erreferentzia egokiak izan daitezkeen *influencerrak* eta horien berri ere ematen diegu, eta aldiz, egokiak ez diren teoriak desmuntatzen saiatzen gara.

### **Sare sozialak aipatu dituzu. Sexualitateari lotuta sare sozialen erabilera desegokiak dituen arriskuez kontziente dira gazteak?**

Gai hau asko lantzen dugu, bai kontsultategian eta baita ikastetxeetan ere, eta beraiekin hitz

*"Ez gaude lehengo egoeran, baina bai, sexualitatearen gaiak tabu izaten jarraitzen du oraindik, nahiz eta apur bat normalizatu den"*

egiten dugunean badirudi baietz, kontziente direla eta ezagutzen dituztela arriskuak, baina hala ere asko jausten dira erabilera desegoki horietan. Harreman batean sartzen dira, hasten dira argazki intimoak konpartitzen eta konturatzerako harapatuta daude, irten ezinda. Arlo teorikoa badakite, diskurtsoa landuta daukate, badakite ez dituztela partekatu behar argazki intimoak, eta *sextingaren* kontrako programa askotan hartzen dute parte, baina gero, praktikan, asko jausten dira. Egoera horri buelta ematea kostatu egiten da, baina beti dago irtenbidea.

### **Sexu hezkuntza eskoletan ikasgai izan beharko litzatekeela defendatzen dute askok. Zer iritzi daukazu zuk horri buruz?**

Aspaldiko eztabaida da hau, eta sarri entzun izan dugu sartuko dutela sexu heziketa beste ikasgai bat moduan, baina ez da zurrumurruetatik harago joan momentuz. Oso interesgarria izango litzateke, baina ez da erraza. Nork emango luke sexu heziketa ikastetxeetan? Irakasleekin askotan hitz egin izan dugu honi buruz eta askok aitortu izan digute beraiek ez daudela sexu heziketa emateko prestatuta. Guk ematen dizkiegu irakasleei ere formakuntza tailerrak, sexu heziketa txertatu dezaten beraien ikuspegian eta adi egon daitezen, baina sexu heziketa ikasgai moduan eman ahal izateko gaiaren gaineko beste ezagutza bat behar da, eta irakasle gehienak ez daude horretarako prestatuta. Beraz, ikasgai bihurtzea ondo legoke, beharra badago, baina modu egokian ematen dela ziurtatu beharko litzateke.

### **Noiz eta nola hasi beharko genuke umeekin sexualitateaz hitz egiten?**

Guk beti esaten dugu zenbat eta lehenago hasi sexualitateaz hitz egiten, hobea dela. Nik urte asko daramatzat ikastetxeetan formakuntza saioak ematen eta hasieran LHko hirugarren zikloan



*Ariana Nogales, Maialen Gurrutxaga eta Nahia Rojo Lilan egin zuten aurkezpenean.*

hasten ginen honekin, hau da, 5. eta 6 mailan. 2009. urte inguruan izango zen, eta orduan LHn tailerrak ematen hastea oso berritzailea izan zen, baina gaur egungo errealitatea oso bestelakoa da, eta konturatu gara emaitzak hobek direla lehenago hasita. Ikastetxe gehienetan LHko bigarren zikloan hasten gara, baina lehenengo mailatik ere iristen zaizkigu eskaerak, eta ikastetxe batzuetan HHrako ere eskatzen dizkigute saioak. Formatoa oso diferentea da, eta HHn normalean ez dugu interbentzio zuzenik egiten. Irakasleen bitartez lantzen da gaia, baina gauza oso politak egiten dira. Haur Hezkuntzan landu daiteke autoestimua, gorpuzta ezagutu, limiteak non jarri behar diren ikasi, ez esaten ikasi... Oinarrizkoa dirudi, baina hori guztia sartzen da ahalduz prozesuan. Bai oso erraz esaten dugu, baina ezetz esatea beti kostatzen zaigu gehiago, beldurrak agertzen direlako, eta sexualitatearen gaiarekin are gehiago. Nerabeek bereziki ezetz esateko beldur handia dute, besteak zer interpretatuko duen beldur delako. Gu saiatzen gara azaltzen ez esateagatik pertsona hori zuzendutako bada, ez dela zuzendutako pertsona egokia.

### **Zein egoeratan jo beharko luke herritar batek zuen aholkularitza zerbitzura?**

Edozein momentutan. Ez zaio inori ezer gertatu behar gureganatik etortzeko; ez da arazoren bat egon behar. Edozein zalantzaren aurrean etorri daitezke gure kontsultategira. Gai zehatz bati buruzko informazio zuzena nahi bada, edo norbait

*"Bai oso erraz esaten dugu, baina ezetz esatea beti kostatzen zaigu gehiago, beldurrak agertzen direlako, eta sexualitatearen gaiarekin, are gehiago"*

tek entzuten badu duda sortu dion zerbaitekin, edo kezka bat baldin badauka... Ez da arazoak dituzten pertsonen zuzendutako zerbitzua; aholkularitza da. Elgoibarko Institutuan ere ematen ditugu tailerrak, eta izan daitezke gure haur egokiaz gelan zintzilik geratu diren gaiak lantzeko. Arazoren bat daukatenean ere etorri daitezke, hori bai, eta gu saiatuko gara laguntzen. Eta insistitu nahi dut edozein etorri daitezkeela. Behin gertatu zitzaidan emakumeentzako tailer bat antolatu nuenean emakume bat etorri zitzaidala alarguna zela esanez, eta ez zekiela tailerrean parte hartu zezakeen edo ez. Anekdotak barregarria dirudi, baina zalantza hori seguru jende askok daukela, baina alargunak izan arren ere, sexualitatea daukagu. Denok daukagu maitatuak, sentituak edo gustatuak izateko gaitasuna, bikotean edo bakarka, beraz, ez du inporta zein den bakoitzaren egoera pertsonala. Hemen denak atzemandu ditugu ondo, konfidentzialtasun osoz. Guk sexualitateari lotutako errealitate guztiak hartzen ditugu kontuan, ikuspegi transfeminista daukagu eta entzuteko eta bidelagun izateko gaude.

## 'Itoiz, udako sesioak' dokumentala emango dute asteburuan Herriko Antzokian



Itoiz talde mutrikuarra protagonista duen *Itoiz, udako sesioak* dokumentala emango dute asteburuan Elgoibarren, ostiraletik domekara. Zapatuko proiektzioa euskara hutsean izango da, azpitolurik gabe, eta domekako eta asteleheneko emanaldiak azpitoluekin emango dituzte.

Larraitx Zuazok, Zuri Goikoetxeak eta Ainhoa Andrakak zuzendu dute filma, Doxa ekoiztetxearen bidez. Zuzeneko grabazioak eta argitaratu gabeko hainbat kanta zeuzkaten zinema zuzendariak, eta, haiekin batera, baita *Udako sesioak* izena zeraman kasete bat ere. Perezek eta Jose Garate Fois-ek 15 eta 16 urte zituztenean elkarrekin etxean egindako hainbat grabazio biltzen zituen kasete hark, eta tartean baziren hainbat urte geroago *Ezekiel* diskoan azalduko ziren bizpahiru kantaren lehen zirriborroak ere. Juan Carlos Perez bera ere buru-belarri inplikatu da dokumentalean, eta zazpi urteko lanaren ostean, Bilboko Zinebi jaialdian estreinatu zuten dokumentala joan zen azaroan, eta asteburu honetan iritsiko da Euskal Herriko 30 bat aretotara, tartean, Elgoibarko Herriko Antzokira.

Itoiz taldearen unerik gorenean kokatzen da dokumentala, eta hain justu taldea desagiteari buruz hausnartzen hasiko da Juan Carlos Perez, Itoiz talde ikonikoaren liderra, ordura arte ikusi ez diren hainbat zinta aurkitu eta gero; po-

perantz estilo aldaketa argi bat izan eta gero. Horrela, Juan Carlosek taldearen muinera bidaiari katartikoa hasiko du, 70eko hamarkadan Mutrikuako rock talde progresiboaren hastapenak berriro biziz. 100 minutuko iraupena dauka filmak.

### Itoiz taldea

1978an hasi eta 1988ra arte aritu zen Itoiz talde mutrikuarra. Indar Trabes izenarekin, berbera eta ezkontzetako musika talde moduan hasi ziren bost gazte, 1974an, baina rock progresiboa egitea zuten helburu. 1978. urtean Durangoko Disko eta Liburu Azokarako diskoa ateratzeko aukera sortu zitzairen, eta taldeari izena aldatzea erabaki zuten. Orduan sortu zen Itoiz, eta taldearen izen berarekin kaleratu zuten estreinako diskoa. Gerora etorri ziren *Ezekiel* (1980), *Alkolea* (1982), *Musikaz Blai* (1983), *Espaloian* (1985), *Nobela Beltza* (1985), *Ambulance* (1987) eta *Eremuko Dunen Atzetik Dabil...* (1988). 1980ko hamarkadaren erdialdera nabarmena izan zen euskal rock erradikaleko musika-taldeen goraldia eta eta Itoizen soinua ez zen giro horretan sartzen. 80ko hamarkada amaiera alderako nekea nabari zitzaion taldeari, eta Juan Carlos Perezek taldea desagitea erabaki zuen. *Eremuko dunen atzetik dabil* disko bikoitza izan zen taldearen azken lana.

## Santa eskerako hasiak dira prestatzen Elgoibarko eta Mendaroko taldeak

Otsailaren 5a da Santa Ageda, eta bezpera, kanturako eguna. Hala izan da Elgoibarko Izarrentzat 1994az geroztik, eta ohitura horri eutsiko diote aurten ere. Santa eskera irten-go diren 31. urtea izango dute aurtengoa, eta ohi legez, 14:30ean abiatuko dira Kalegoen plazatik baserri auzoetara, kantura eta eskera. Bi taldetan banatu eta 21:30ak aldera ariko dira zeregin horretan. Koruetan parte hartzeko izena eman behar da, eta urtarrilaren 31 izango da horretarako azken eguna. Hiru modu daude izena emateko: telefonoz deituta (943 741 626), e-mailez ([elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)) edota Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturagunean daukan lokalera etorrira.

Baina Elgoibarko Izarrena ez da kantura irtengo den talde bakarra izango. Otsailaren 1ean irtengo dira Etxegina taldekoak santa eskera, kalez kale. Berezia izango dute aurtengoa, gainera, Etxegina taldearen mendeurrenekoa izango delako. Santa eskekoek bi entsegu egun izango dituzte kantura irten aurretik: otsailaren 28an eta 30ean, 20:00etan, Kultur Etxeko Sotoan.



### Mendaron, otsailaren 8an

Otsailaren 8an irtengo dira Mendaron santa eskekoak. 08:30ean elkartuko dira udaletxeko plazan eta hiru taldetan banatuta herriko base-riak eta kaleak koplaturiko dituzte koplariak eta tritikilariak lagun hartuta. Beñat Lizaso, Amaia Agirre, Unai Mendizabal, Aitor Salegi, Iñigo Zubiurre eta Aitor Zubikarai izango dira koplariak.

### Jubi antzerki taldekoak lagun berrien bila ari dira, beste antzezlan baterako

Elgoibarko Jubilatokiaren Biltokiko Jubi antzerki taldekoak antzezlan berri bat prestatzen hasi dira, eta parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Taupada antzerki taldearen eskutik 2023ko urrian jubilatuetan egin zuten aktore formakuntzarako antzerki taileretan sortu zuten Jubi antzerki taldea. Gerora, bi emanaldi egin dituzte. Lehena, Jubilatuen Biltokian, mikroantzerkiaren bi ale antzeztu zituzten iazko maiatzean, *Antzerki ferekak* izenburupean. Gloria Santiago, Rosa Mata, Mari Tere Arakistain, Coro Fernandez, Loli Outumuro eta Maite Txurruka aritu ziren aktore lanetan, Taupadako Edurne Lasa eta Joxemari Larrañagaren gidaritzapean. Antzezlan hori osatu eta ondu ostean, Donostiako Intxaurrondo auzoan taularatu zuten berriro abenduaren 12an, Agijupensek sustatutako Gipuzkoako pentsiodun eta jubilatuentzako antzerki taldeen topaketan. Orain,



antzezlan berri bat sortzen ari dira eta taldea handitu nahi lukete. Formazio saioa ere antolatu dute eta interesa duenak Jubilatuen Biltokian eman behar du izena, astelehen eta barikuetan, 11:00etatik 12:00etara, edota 688 742 013 telefonora idatzita. Formakuntza saioan izena emateko 22 euro ordaindu beharko dira hilero eta saioak euskaraz izango dira.

## Amorante eta Adriano Galantek ANTE proiektua emango dute Mendaron hilaren 31n



**I**ban Urizar *Amorantek* eta Adriano Galante musikari eta performerrak elkarlanean sortu duten ANTE proiektu eszeniko eta poetikoa aurkeztuko dute Mendaroko San Agustin kultur-gunean, urtarrilaren 31n (barikua). Mesa 7 Kulturaz Sustatuz taldeak antolatu du kontzertua eta sarrerak Uztargi tabernan jarri dituzte salgai aurrez, 15 euroan. Hala ere, eta aurrez amaituko ez balira behinik behin, egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira, San Agustingo atean bertan. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

### 'Eukalyptus' antzezlanaren emango dute Elgoibarren domeka eguerdian

Antzerkiak hartuko du domekan Elgoibarko Aita Agirre kultur-gunea. 12:30ean, *Eukalyptus* antzezlanaren ikusteko aukera izango da, gaurko bizimoduaren eta eukaliptoaren hedapenaren arteko antzekotasunei begira Jon Ander Urresti sortzaile bermeoarrak sortutako antzezlanaren. 2022ko Durangoko Azokaren Sormen Beka irabazi zuen Urrestik lan honekin eta lurrari eta gure bizitzari buruz egiten dugun kudeaketari buruzko hausnarketa sustatu nahi du.

Obra osoan zehar, bi lagun agertuko dira jendaurrean: Urresti bera eta Beñat Urrutia, eta bakoitzak bere pertsonaia izango du. Bere ba-soak esplotatzen dituen lurjabe batena egingo du Urrestik eta kanpotik heldu den langilea gorpuztuko du Urrutiak. Urrutia dantzaria da, eta dantzatik ere badu antzezlanak.

## Nuhaa Furnier, Malen Bilbao eta Maite Izagirren lanak saritu dituzte Mendaroko ipuin lehiaketan



Bariku iluntzean banatu zituzten Mendaron ipuin lehiaketako sariak. Hiru lagun saritu zituzten: Maite Izaguirre Esperezate mutrikuarra, Malen Bilbao Olaskoaga elgoibartarra eta Nuhaa Furnier Egiguren mendaroarra.

Aurrez esana zuten orain arteko parte-hartze handiena izan dutela aurten. Hiru kategorian banatu dituzte. LH1etik LH4ra bitarteko ipuin bat eman zieten, ipuin bera, eta hura ilustratzeko lana eman zieten. Maila honetan 730 lan jaso zituzten, eta guzti horien artean Maite Izaguirre Esperezate mutrikuarraren lana apartatu zuten epaile lanak egin dituzten Aitor Etxeberria eta Jaime Zamakola artistek. LH5etik DBH2ra bitarteko alderantzizko lana egin behar zuten: emandako ilustrazio batetik ipuina sortu, eta 428 idazlan aurkeztu zituzten. Iñaki Goitia idazle eta Mendaroko liburuzainak eta Ainara Argoitia kazetariak egin zituzten epaile lanak eta Elgoibar Ikastolako Malen Bilbaoren lana nabarmendu zuten. Nagusien kategorian, berriz, DBH3 eta DBH4ko ikasleek parte hartu zuten, eta haien lana komiki bateko hutsuneak betetzea izan zen. Amagoia Zabala gizarte-langileak eta Olaia Revert Lan-osasuneko erizainak, biak ere liburu bana idatzitakoak, egin zituzten epaile lanak kategorian honetan eta 133 lanen artean Nuhaa Furnierrena (Elgoibar BHI) aukeratu zuten. Frontoian egin zuten sari banaketa ekitaldia, eta sarituen lanak liburutegian jarriko dituztela jakinarazi zuten Enez Ezenarro alkateak eta Dorleta Lazarobaster Kultur zinegotziak.

## San Anton egun hotza girotu zuten elgoibartarrek

Urtarrilaren 17a San Anton Eguna izan zen. Hotz esnatu zen eguna, baina oskarbi, eta elgoibartarrek asmatu zuten giro hotza epeltzen. Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen, eta horri esker, jai-giroa nagusitu zen kaleetan. Goizean ume eta gaztetxoentzako puzgarriak izan ziren plazan, eta arratsaldean erraldoi eta buruhandien kalejira. Filatelia erakusketa ere inauguratu zuten, eta bihar izango du azken eguna. Euskadiko Filatelia Federazioak urteko batzarra egingo du goizean, eta eguerdian eskerrak emango dizkiete aurtengo erakusketan parte hartu dutenei Kultur Etxeko sotoan. (📷 Mikel Askasibar)



## San Anton txapelketak baditu irabazleak



**H**armailak ikuslez beteta zeudela jokatu zituzten San Anton Pilota Txapelketako hiru finalak, barikuan. Emakumeen lau t'erdiko txapelketako hirugarren edizioako finalarekin hasi zen pilota jaialdia. Goiuri Zabaletak (Leitza, 2009) eta Amaia Aldaik (Dima, 2001) duela hilabete Emakume Master Cupeko lau eta erdiko finaleko norgehiagokaren errebantxa jokatu zuten; eta, berriro ere, 15 urte besterik ez dituen pilotari leitzarra gailendu zen. Zabaletak 22-18 irabazi zion Aldayri, eta iazko arantza ere atarra zuen, txapeldunorde izan baitzen Elgoibarren. Promesa mailako pilotariak kantxaratu ziren hurrena, eta bikote urdina, Harkaitz Murua aurrelari gipuzkoarrak eta Julen Sotil atzelari nafarrak osatutakoak, irabazi zuen finala, Ramirezi eta Leoneti 22-13 irabazita. Senior mailako finala izan zen hiru finaletan lehiatuena eta parekatuena. 20nako berdinketaren ondoren, Ekhi Irribarriak eta Carmelo Lozak egin zituzten partidako azken bi tantoak eta 22-20 irabazi zieten Rekalderi eta Landari. Lagunak Pilota Eskolakoak pozik dira aurtengo txapelketak eman duenarekin, eta uste



dute asmatu egin dutela partidaren hasiera ordua 19:00etara aurreratzeko erabakiarekin. Pilotalekura jende gehiago erakartzea zen euren asmoa eta bi finalerdietan igarri dute bereziki, harmailak beteago egin direla. (👏 Mikel Askasibar)

### Herri-kirolen jardunaldia, bihar



Elgoibarren Eskola Kirolean parte hartzen ari diren neska-mutilek herri-kirolen jardunaldia izango dute bihar, hilak 25. Kalegoen plazan izango da (euria egingo balu, IMH kiroldegian), 09:30etik 12:30era bitartean. Hainbat herri-kirol probatzeko aukera izango dute gaztetxoek, besteak beste, lokots bilketa, txinga eramatea, zaku lasterketa, giza-probak eta sokatira. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako jardunaldia da, eta momentuz 131 ikaslek eman dute izena. Dena dela, aurrez izena eman ez arren, egunean bertan azalduta parte hartu ahal izango dute.

## Igeriketa taldeak San Anton txapelketa antolatu du zaturako



**E**guberrietan antolatzen zuten igeriketa erakustaldia berreskuratu du Elgoibar Igeriketa Taldeak, baina aurrerantzean urtarrilean egingo dute. Etapa berriko lehena bihar egingo dute eta San Anton Txapelketa izena jarri diote. Igeriketa eskolako igerilariek zein master kategoriako igerilariek parte hartuko dute eta, etxekoez gain, Eibar Igerixan taldekoek, Bergarako Igeri Taldeko zenbait igerilarik eta Azkoiti-

ko Zubiaurre Igeri Taldeko master kategoriako hainbat igerilari lehiatuko dira Olaizagako kiroldegiko igerilekuan jokatu duten proban. Adin askotariko igerilariak igeriketa estilo desberdinetan lehiatuko dira, eta antolatzaileek jarritako hainbat erronka gainditu beharko dituzte. Igeriketa eskolakoak 15:00etatik 17:00etara arituko dira lehian eta 17:00etatik 20:00etara master igerilariak.

### Jaitsiera postuetatik urruntzeko partida jokatu du Haundik etxean



Gizonezkoen Haundi futbol taldeak Mutrikuren aurka jokatu du bihar, 16:00etatik aurrera, Mintxetan. Hamazazpi jardunaldi jokatu eta gero, Haundi jaitsiera postuetatik bi puntura dago sailkapenean, 17 punturekin, azken laugarren postuan, eta azpiko postuetatik urruntzeko partida garrantzitsua izango da. Hori dela-eta, zuzendaritzatik dei egin diete zaleei Haundiri babesa ematera joateko Mintxetara. Senior gizonezkoen bigarren taldeak, erregionalekoak, oso bes-telako egoera bizi du, mailaz igotzeko fasea jokatzeko sailkatu baita.

### Leire Egaña esku hutsik bueltatu da Espainiako oilagor txapelketatik

Emakumeen Espainiako Oilagor Ehiza Xehe Txapelketaren hirugarren edizioa jokatu zuten zapatuan, Nafarroako Ezporogi-Sabaizako baso eremuan. Ehiza modalitate honetako estreinako Espainiako txapelketa da Leire Egaña elgoibartarra. Estreinako edizioan inork ez zuen oilagorrik ehizatu eta titulurik ez ematea erabaki zuten; eta, bigarren edizioan, iaz, Egaña gailendu zen Madrilan jokatu zuten lehian. Aurten ere hartu du parte, baina ezin izan dio tituluari eutsi. Gaztela eta Leonko ordezkari Monica Ojedak irabazi du aurtengo txapelketa, bi oilagor ehizatuta. Gainerako zazpi partaideek, tartean Ainhoa Toledo eta Leire Egaña euskaldunek, ez zuten ezer ehizatu. Zenbait oilagor ikusi arren, ez zuela haiek ehizatze aukerarik eduki azaldu du Egañak "Goiz gutzia pasatu nuen bi oilagorren atzetik, baina izuak ziren oso, eta ezin izan nien tirorik egin. Datorren urtean saiatuko naiz berriro, ilusioz gainera".





## Igoerak egon dira Udal Kirol Patronatuko tarifetan

**E**lgoibarko Udal Kirol Patronatuko abonatuak ordaintzen dituzten tarifetan 2025ean egongo diren aldaketan eta igoeren berri eman dute arduradunek. Arrazoitu dutenez, zerbitzua emateko azpikontratatzan duten enpresako beharginen soldatak igotzeko eta eskaintzen duten zerbitzua hobetzeko igo dituzte tarifak. Portzentajeetara ekarrita, zerbitzu horien kostuak %47 egin du gora harrera zerbitzuan, %25 sorosle eta monitoretan, eta % 50 baino gehiago garbiketan. Zehaztu dutenez, urtez-urte gora egin du langileen soldatetara bideratzen duten diru kopuruak. "2023an, aurrekontuaren kostu osoaren %40 hartzen zuen; 2024an, ia erdia izatera igaro da; eta 2025erako, berriz, %60 izatera igaroko dela aurreikusten dugu". Soldatetara bideratutako azken igoeraren ondorioz, aurtengo aurrekontuak %22ko igoera izan du. Eta hori energia gastuak %15a jaitea lortu dutela, aurrez egin dituzten inbertsioen ondorioz. Mintxetako igerilekuetako bainu denboraldia 15 egunez luzatzeak gastuak %30ean handitzea ekarri duela ere esan dute.

Igoera honek eragina izango du abonatu kuota eta ikastaroen prezioetan. Esate baterako, 2025ean 18 urtetik gorako urteko kuota individuala 188 eurokoa izango da, iaz baino 19 euro gehiago (%11,1 handiagoa). Abonu fami-



liarra, berriz, 343 eurokoa izango da aurtengoa, iaz baino 36,75 euro garestiagoa (%12 handiagoa). Mintxetako igerilekuen denboraldiko abonua ere gora egin du: familia abonua 142,5 eurotik 206 eurora igo dute; 63,5 euro gehiago (%44,5 garestiagoa).

Dena dela, orain arteko deskontuak ere aplikatuko dizkiete jubilatuei, langabetuei, ikasleei, guraso bakarrekoei...

Udal Kirol Patronatuak beste herriekiko datu konparatiboak ere eman ditu. Hauek dira herri hauetako urteko abonua familiarren prezioak: Eibar (228 euro), Azkoitia (313 euro), Beasain (520 euro), Azpeitia (313 euro), Arrasate (349 euro), Bergara (628 euro) eta Hernani (247 euro).

Abonuei buruzko zehaztapenak [barren.eus](http://barren.eus) atarian.





**Mikel Leon**  
[inmomikel@gmail.com](mailto:inmomikel@gmail.com)

**747 459 343**  
 San Ignazio kalea 1,  
 20870 Elgoibar

 [@mikel\\_inmobiliaria](https://www.instagram.com/mikel_inmobiliaria)

ETXEA SALGAI (igogailuarekin) Santa Ana kalean. 4 logela. 168.000€




**LANA**

**Eskaintzak**

Elgoibarko ile-apaindegi baterako langilea behar da. Jardun erdi edo osorako. Berehala hasteko. 634 261 485

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanetarako ere. Esperientzia. 15:00etatik aurrera edo gauzez egingo nuke lan. 642 249 584

Adinekoak zainduko nituzke. Oporretan eta gauzez ere bai. Orduka edo etxeko langile moduan jarduteko prest. Esperientzia. 642 852 854

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzi handia ditut. 642 852 854

Langile arduratsua adinekoak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Orduka edo etxeko langile moduan. 632 708 954

Zerbitzari moduan egingo nuke lan. Esperientzia. 632 292 662

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan, ospitalean, gauzez... 632 292 662

Edozertan egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest nago. 643 097 599

Lanerako prest nago: Margolari lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzi handia daukat. Titulu soziosanitarioa daukat. 603 727 067

Adinekoak nahiz umeak zaintzen egingo nuke lan, baita garbiketa kontuetan ere. Titulua eta formazioa ditut. 643 097 648

Edozein lan egingo nuke: gizon adinekoak zaindu, obran, pintore lanak... Eskarmentua daukat eta erreferentzia onak. 603 727 067

Gizon adinekoak zaintzen, garrarioan, karga-lanetan... egingo nuke lan. Esperientzia daukat. 614 114 360

Adinekoak eta umeak zaintzen edota etxeak eta lokalak garbitzen egingo nuke lan. 643 505 827

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa daukat eta eskarmentu handia. Berehala lanean hasteko prest. 643 505 662

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. 602 152 685

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. 602 362 919

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. 642 852 854



**BESTELAKOAK**


Oraiko pub zeneko baso-azpiko bat nahiko nuke. 688 624 326

Taka-taka bat daukagu saltzeko. Berria dago. 615 759 069



4 urteko umearen patinete txiki bat galdu dugu. Urdin argia da. 628 564 011

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos Euzkoako Elkarrekin Administrazioaren Erakundeak</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean obra batzuk egin dira, eta diru-laguntza jaso dugu horretarako. Obra hori egiteko dirua, baina, etxejabeok aurreratu genuen. Orain, diru-laguntza iritsi zaigunean, aurreratu genuen diru hori banatzea erabaki dugu. Tarte horretan, baina, dirua jarri zuen etxejabeetako batek etxebizitza saldu du, eta jakin nahiko nuke diru hori nori eman behar diogun: etxejabe horri ala etxejabe berriari.</b></p> <p>Komunitateko kontuan sartzen dugun dirua, izan diru-laguntza bat edo izan geuk aurreratu dugun dirua, komunitatearena da, eta diru hori etxejabeen artean banatzeko jakiekideen batzarraren onespena beharko da ezinbestean. Beraz, obra hori egin ezean ere inork ez du bere kabuz dirua itzultzeko eskatzeko eskubiderik. Kasu horretan ere dirua komunitatearena izango da, eta jakiekideek eurek erabaki beharko dute diru hori banatu edo beste zerbaitean inbertitzea. Beraz, une horretan etxejabea denak ordaindu beharreko kuotak ordaintzeko betebeharra dauka, baina onurak ere berak jasoko ditu. Etxea erosten den unean bertan egiten ditu bere etxejabe berriak eskubideak eta betebeharrak.</p> <p><b>AHOLKUA: Izatekoan ere, dirua aurreratu zuen etxejabe horrek etxejabe berriaren kontra egin dezake eta aurreratu zuen dirua itzultzeko eskatu, baina komunitatea ez da ezeren erantzule izango kasu horretan. Komunitateak etxejabe berriari eman beharko diolako dirua.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Erik**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat Sara eta amatxoren partez.



Zorionak, **Alaia**, astelehenean 6 urte beteko dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu potolo bat familiako guztion partez. Gu, mokadurako prest!



Zorionak, **Laia**, urtetxo bat bete duzulako. Muxu potolo bat etxekoekin partez.



Zorionak, **Laia**, zure 11. urtebetetzear. Besarkada handi bat etxekoekin, eta bereziki, Mararen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**%30 EKO DESKONTUA**  
**NEGUKO OHE-ARROPETAN**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**BARREnek kontu berria dauka**

**Mastodon.eus-en**

**Deskargatu aplikazioa eta jarraitu gure kontua:**  
[mastodon.eus/@barren@tkm.eus](https://mastodon.eus/@barren@tkm.eus)





**Zer da Mastodon.eus?**

**Mastodon.eus euskara eta euskal kulturaren komunitatearentzat sortutako Mastodon instantzia bat da. 2018an hauek sortua:**

Azkue Fundazioa / Dinahosting  
Iametz / Laborategia.eus  
PuntuEUS / Talaios Koop



**ONGI ETORRI!**



**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**PLANTXA**

**ROWENTA DW4390BG**



- 2500 w
- Lurrun-kolpea 150 g/min
- Lurrun jarraitua 40g/min.
- Tanten aurkako sistema
- Altzairu herdoilgaitzezko zola

**39,90 €**



**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 24 BARIKUA

**17:00 eta 19:00** Goazen!. Kontzertua, Herriko Antzokian.

## 25 ZAPATUA

**11:00** Filatelia Elkarteko Euskal Federazioaren urteko lehen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Filatelia erakusketaren itxiera ekitaldia eta parte-hartzaileei omenaldia. Kultur Etxeko sotoan.

**Eguerditik aurrera** Hileko azken zapatuko feriaren barruan, ganadu erakusketa. Kalebarren plazan.

**16:00** Igeriketa torneoa. Olaizaga kiroldegian.

## 26 DOMEKA

**11:30** Sendi Anaitasuna elkartearen urteko batzarra. Mendaroko Azpilgoetako elizan.

**12:30** Antzerkia: 'Eukalyptus'. Jon Ander Urres-tik aurkeztuko du. Aita Agirre kulturgunean.

**128:30** Antzerki-bakarriketa: "Andereño Rosita". Mendaroko San Agustin Kulturgunean.

## 27 ASTELEHENA

**18:00** Hausnarketa taldea: Emakume salbatzailea. Loredi Salegirekin, Lilan. Ele bietan.

## 28 MARTITZENA

**16:00** Zaintza eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua. Merlin Medinarekin, Lilan. Bakarkako saioak izango dira. Txanda hartzeko: [elgoibarkozaintza@gmail.com](mailto:elgoibarkozaintza@gmail.com) 688 640 983

## 29 EGUAZTENA

**17:00** Azalerako ipuinak: 0-1 urte bitarteko haurtxoak ipuinetara erakartzeko saioa. Saroa Bikandirekin, Gotzon Garate liburutegian.

**18:00** Hitzaldia: 'La fortaleza emocional'. Loredi Salegirekin, Lilan. Gaztelaniaz.

## 31 BARIKUA

**18:30** Kafe tertulia, 7. arteari buruz. Lilan, Loredi Salegirekin.

**22:00** Amorantek eta Adriano Galantek ANTE proiektua aurkeztuko dute Mendaron, San Agustin kulturgunean. Sarrerak Uztargi tabernan daude salgai aurrez, 15 euroan.

## Zinea Herriko Antzokian



### 'Itoiz, udako sesioak'

25 zapatua: 19:00 / 22:15

26 domeka: 19:00

27 astelehena: 21:00

### 2025eko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### URTARRILA

24 BARIKUA

25 ZAPATUA

26 DOMEKA

27 ASTELEHENA

28 MARTITZENA

29 EGUAZTENA

30 EGUENA

31 BARIKUA

### Egunez

■ Fernandez

Yudego

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Soto

Garitaonandia

Arriola

2025 urte guztian, gauzez: Mikel Lekunberri Alberdi.  
Isasi, 31 (Eibar) - 943 204 230

■ Fernandez:  
Herriko Enparan-  
tza,4  
Garagartza (Men-  
daro)  
943 756 142

■ Soto  
Rekalde, 1 (So-  
raluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384

**MADU, igarle sendatzailea**

Bikote harremanak onbideratzen espezialista.  
Begizkoa kentzen dut.  
Sexu-ezintasuna sendatzen dut.  
Zorte ona erakartzen dut negozio berrietarako;  
bideak zabaltzen ditut.  
Emaitza onak %100ean ziurtatuta.

Harremanetarako: 647 449 544



## **Beñat Gutierrez Arrieta**

2025eko urtarrilaren 22an hil zen, 38 urte zituela.

**Zauden lekuan zaudela, atsedean har dezazula bakean**

Arrieta familia



## **Ana Mari Mallaviabarrena Pagate**

2025ko urtarrilaren 21ean hil zen 79 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.


**Bizitzak zenbat balio duen erakutsi diguzulako,  
zure indar eta kemenak beti lagunduko gaitu.**

**Aitaren ondotik zaindu gaitzazu.**

**Ez zaitugu ahaztuko.**

**Askoko maite zaitugu.**

Etxeakoak



IX. URTEURRENA  
**Garbiñe  
del Hoyo Murua**

2016ko urtarrilaren 28an hil zen,  
48 urte zituela.

**Zeruko izarren artean  
aurkitu duzue tokia,  
lurrean utzi dituzuen  
izarrei emateko argia.  
Zuen indarrak emango  
digu benetako bizia,  
egunsentiarekin batera  
jarraitzeko bidia.**

Zuen familia




IV. URTEURRENA  
**Desiderio  
del Hoyo Amigo**

2021eko otsailaren 19an hil zen,  
78 urte zituela.


Haien oroimenez urteurreneko meza izango da, domekan,  
urtarrilaren 26an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.





Jose David  
Sandoval  
Vargas

11 urte, Elgoibar



"Angry Birds Stella"



Aitor  
Pato  
Sierra

10 urte, Elgoibar



"Octopus"



Ea asmatzen dituzun asmakizun hauek!

*Balio dute jateko, balio dute ukitzeke eta txalo egiteko, eta nola ez, orri hau pasatzeko.*

-----

*Gona luzea du, mihia motza eta urrutitik entzuten da haren kantua ahotsa.*

-----

*Aurrean punta bat, atzean zulo bat, zer naiz?*

-----

*Udan jendez beterik, neguan huts-hutsik; zutik baino jende gehiago egoten da han etzanik.*

-----

## MATEMATIKAK

Peru eta Miren eskolako lanak egiten ari dira. Jarri dagokion eragiketa ikurra (+/ -) hutsune bakoitzean:

$$22 \quad 2 \quad 113 = 137$$

$$73 \quad 23 \quad 1 = 49$$

$$13 \quad 1 \quad 66 = 78$$

$$58 \quad 11 \quad 12 = 35$$

$$99 \quad 15 \quad 3 = 87$$

$$87 \quad 12 \quad 8 = 107$$

Erantzunak: \_\_\_\_\_


JIRAFIA  
TXERRIA  
Hitzak osatu:

HONDARTZA  
ORRATZA  
KANPAIA  
ESKUAK  
Asmakizunak:

$87 + 12 + 8 = 107$   
 $99 - 15 + 3 = 87$   
 $58 - 11 - 12 = 35$   
 $13 - 1 + 66 = 78$   
 $73 - 23 - 1 = 49$   
 $22 + 2 + 113 = 137$

## HITZAK OSATU

Hitzak osatzeko letrak egoki ordenatu eta ondoren marraztu!



I R A T R E X

-----



F A J A R I

-----

*baserriz baserri, kantuan eta eskean, otsailaren 4an*

# SANTA AGEDA BEZPERAN ELGOIBARKO IZARRAREKIN



Arratsaldeko 14:30ean bilduko gara Kalegoen plazan,  
eta bi taldetan banatu ondoren, 21:30ak arte jardungo dugu  
baserriz baserri kantuan eta eskean

Urtarrilaren 31 izango da koruetan izena emateko azken eguna:

943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

